

Gure asmoa

Lantxo au Azkue Jaunaren gorespenez egin gura eben jai baterako gertatua da, 1958'gn.

Atomika ta urrutikuzkin aldi onetan
batzun eretxiz iltzer dagoan Euskera,
seme zintzoen maitasun beroz sendotu naian
toki onetan, anaitasunez, bat gara.

Asmo oneri ondo eretxi eta txalotu
nai ez dabenik egon leikela nok uste?
zelan amaren ugatz gozoaz, laztan artean
ikasi daben Euskera samurra ez maite?

Gizon guztiak, gizon garanez, anaiak gara,
alan da bere ez dago gizon bardiñik;
gizon bakotxak beren izate berezi ba'dau,
zelan ez bere egintzan euki alderik?

Au ez da sortu egundo bere gizonen naiez,
gauza guztien Egillea dan Jaun ona
izanda da beti erri bakotxen izakereaz
berezia dan «zertxobait» emon dautsona.

Jaun berbera da gizon-erriei esan dautsena:
-Biotz-biotzez alkar maitatu, gizonak,
nai ba'dozuez zeuen begiaz danok ikusi
maitasunetik sortzen diran gauza onak.

Maitasuna da gure bizitzan bizi guztia,
bakotxa bere maitetasunak darabil.
Maitasun barik lege bakarra auxe litzake;
bizi guztian alkarr-burruka, ta gero il.

Bakotxak bere izakera dau berez lez maite,
gero guraso sendia eta erria,
auxe da beti erri danentzat, guretzat legez,
Jaun maitetsuak ipiñi euskun legea.

Biotz barruan sustarrak dauzan lege oneri,
gizon zintzoak ezin uts-egin leikio,
bere burua ezetsi barik, eta orreri
bildurrik barik, «saltzale» esan geinkio.

Asabakandik jarauntsi dogun etxe, baserri,
zaintzen dabena ez ete dogu goraltzen?
bere guraso maiten izerdiz bustiko lurrak
-seme zintzoak ez ete ditu maitatzen?

Baiña ba-dogu ondasun danak baiño geiago

lurreko gauza danen artean zaingarri;
Euskera gozoz esan genduan lenengo itza;
Ama! maiteki esan geuntsona Amari.

1) Euskera

Laztan artean Aman agotik ikasi gendun
biotz-barruan sustarrak dauzan Euskera,
Europa'n zarren, jakintsuentzat ederren eta
guretzat samur, eztitsuen dan izkera.

Egoki dator une onetan, Amairugarren
Leon'en itzok gure artean aitzea:
«Gizon izate muñean dago asabakandik
dogun izkuntza maitatu eta zaintzea» (1).
Ondo ete da euskeldunontzat gure izkuntza
zabarkeri ta maitasun ezaz galtzea?

Jaungoiko onak ez gagizala eskutik itxi,
galdu ez daigun Bere emaitza dan Euskera,
ainbeste milla urte ondoren urratuagaz
asabakazko urre-lokarri ederra.

Ez dogu iñok eskubiderik gure errian
ondasunegi bardingabe au saltzeko,
«seme gaizto ta eskergabeko» izen samiña
ondorengoak emon ez daigun betiko.

Gure Euskera, samur ta eder, bardingabeak
gure mendiak zutik dagozan artean,
iraun dagian bizkortu daigun seme guztiok
alegin danok alkartuagaz batean.

Erbestetako gizon jakintsu asko dakusguz
Euskera ondo zaindu daigula arrenka,
seme gaiztoak dakuselako erruki barik
ama oraren aldamenetik igeska.

Non aurkitzen da Ama arnasa artu eziñik
ikusten dauala, igesi doan semerik?
Nor da biozge, negar samiñez ito bearrez
dagon Amari lagun einbako gizonik?

Ortxe dogu ba Ama Euskera maitagarria,
siñeste bizi, oitura garbi zaintzalle,
itz garbikoa, bakezalea, biotz zabaldun
euskeldunontzat zorionaren ekarle.

Atsekabeak atso tximurtu biurtu dabe,
eskertxarrak be biotz barrena samindu,
areriotzat artu dabenak, itsu-itsurik
nai izan dabe bere bizitza laburtu.

Izan ditu bai, Ama Euskerak seme zintzoak
bera bizkortzen gogoz jokatu dabenak,

ondo ikasi, itz-egin, landu eta zabaltzen
indar guztiak aleginduten ziranak.

Baiña bat dager, zentoi antzera gorengo maillan
Berbizkunde dau izen, izatez gelgarri,
AZKUE Jauna, bizi ta dana, opa eutsona...
Aintza ta gorak euskeldun danok berari...

(1) 1901'gen Boemia'ko Gotzañei idazki baten.

2) Euskera, zertarako?...

Zoritxarrean izan zan bein bat, Euskel-Semea!...
zentsungekeri andi au esan ebana:
«Euskera iltzer dagoan arren, ez dau ardura,
goi-gaitarako ez gauza ta, onena
il egizue albait lasterren, ta lur emonaz
eleiz-progu bat egitea da zuzena».

Beren izena zetan aitatu? Zaragozatic (1)
erantzun eutsen. Gogoan artu betiko:
«Esaten dabe izkuntza ori laburra dala,
ez dala gauza birao itzik jaurtzeko.
Ez al da izan gai enda orren ekandu garbi
zillegi-lege, sendotasuna zaintzeko?»

Laburra dala? Ezjakiñentzat dana da labur,
Burudunentzat zentzun-legea: Ikasi...
Nobel saria irabazi daun Jimenez jaunan
«Platero y Yo» euskeratuta ikusi... (2).

Menendez Pidal jaun jakintsuak argi diñosku:
«Zorionean guk euskeldunok dogula,
España'ko len-edestia argituteko
gai bakarrik dan izkuntza zar au: **EUSKERA**.
Beste izkuntza ertitsu eta aintzat artuak
-diño berberak- izango dira munduan,
baiña Ibertar gizabidea ezagutzeko
ez da besterik euskerearen ondoan».

Goratu daigun Euskera ba, geurea da-ta,
itz ta idartz erabiliaz zabaldu.
Agurgarria dan Kardaberatz'en esakun auxe
egundo bere gure bizian ez aztu:
«EUSKERAK BURUA JASOTZEA JAUNGOIKOAK NAI DU».

309. «El Eco de la Cruz» aldizkingia.
(2) «Platero ta Biok» Ametzaga'tar Bingen. Montevideo, 1953.

3) Euskel semeak

Ama Euskerak bere bularrez azi dituan
giza-gurenak, nok ete leikez zenbatu?
Itxastar gizon, lurbira-zear entzutetsuak,
Uri irasle, nok ezagutu ez ditu?

Erri zuzentzen, lege-gilletan, neurritasunez,
gogorkeri ta bigunkerian erdian,
ete da erri bat zurtasunean zuzenagorik
gizabidedun erri guztien artean?

Jakituri, Jainko □antero, lege-azaltzen,
irakasletzan goren ziranak zenbatu?
Danak aitatzen zeregin latza egiaz da-ta,
edestiaren □anter onak zabaldu.

Lurbira-zear Kristo'ren Egi-zabaltzalletan
kemen adorez euskeldunak ez bardiñik,
euren indar ta gogo-guztiaz ekin ondoren,
ez eben izan odol ixurtzen □anterot.

□anter gizonen mailla □antero, ainbeste Gotzain,
baita gorago □anter Antzaintzan jakitun,
emen ta urrin, mundua-zear gaillendu dira,
argi egiñaz, naiz ta askok ez ezagun.

Or dogu gure euskel-eredu baserritarra,
zintzo, arteza, beti burrukan lurragaz,
artzain menditar, sendo nekagaitz euri ta edur
ekatxen bildur beti artalde arduraz.

Or dogu baita arrantzalea, itxas-erdian
zibuka beti bizitz-eriotz artean,
kresala baiño gaziago dan egun-ogia
sendiarentzat irabazteko lanean.

Burdin oletan mea burdintzen ola gizonak,
aik bai'zirala trebetasunez nagusi!
Lan gogorrean euren ondoan gitxi txapeldun;
gaurko gizonak ba'daukie non ikasi!

Bertsolaria, txistularia, pelotaria,
aizkolariak □ante geinkez batean,
Euskeran seme leial ta zintzo, gizaldi-zear,
gure errian izan ziranen artean.

Ama Euskeran semeak dira orrek guztiok
Euskel-erriko mendi-ibarren pozgarri,
gure goraltza maite-beroak ainbeste seme
kristiñau zintzo azi dituan Amari.

4) Baserritarra

Orra or gure baserritarra,
otoitz egiñaz goxean,
lan gogorrari beti lotuta,
solo, baso ta mendian.
Izerdiz lurra narotuten dau,
sendi kristau bat azteko,
eta nekerik ez dau ezautzen

□ ant ori betetako.

«Itzetan labur, egiten luze»
zintzo, beti egizale,
emon daun itza zeatz zaintzeko
lur osoan bardin gabe.

□ anterot on, biotz zabala,
beartsuaren laguna,
itzekaz baiño egitez obe
agertzen dau maitasuna.

□ anterota □ maite-maite dau,
zuzentasunaz batean,
bestearena be zaintzeko gertu
bakean bizi naiean,
Kistar zintzo lez sendi □ antero
Agurtza deuna errezau,
asabakandik daben «Fedea»
iraupen sendoz zaintzen dau.

5) Artzaiña

Artzaiña dogu euskal-eredu
errege gure mendian,
gorputz sendodun ta neke-gaitza
ardien alde danean,
mendietako aize antzera
□ anterota □ zalea,
baiña beretzat lokarri bat da:
maite daben artalde.

Otso, azeri inguruetan
ba'dabil □ ant gaiztoaz
zoro biurtu dala dirudi
azpiratzeko asmuaz.
Neke ta lorrik beretzat ez da
etsai au galdu artean,
ain maite dauzan ardi gaxoak
ikusi arte bakean.

Negu gorrian edur zuria
beretzat bai dala baltza,
burua makur ikusikogu
artaldeaz urirantza,
ta eguzkiak izpi-beroaz
edurra urtzen daunean,
irribarre ta biotze pozez
dagusgu mendi bidean.

Ezezaunagaz zerbait maltzurra
dala, sarritan diño,
uste dot baiña orretan zurra
dala esatea obe.
Gogo argi ta biotz oneko
ezpalitz artzain zintzoa,

zelan dakusgu izatez dala
betsolaritzat jaioa?

Gaur bere etsai andientzat dau
zorioneko piñua!
Mendi gainetan berak zaintzen dau
gure Euskera maitea,
ein begi Jaunak mendiak aiña
bizi-bizkor irautea!

6) Arrantzalea

Giza gurenik ba'da lurbiran
begiko ta errukarri,
begira or Euskal-erriko
arrantzale apalari.

□ anterota □ beti zibuka
itxas-olatu antzean,
eguneroko ogi billatzen
Kantauri'ko ur gazian.

Bere bizia ari batetik
beti dirudi zintzilik,
itxas-asarre errukibage
azpian dago zabalik.

Sendi-maitasun eragilleak
indartzen dautso biotza
naiz ta sarritan begi aurrean
euki eriotza baltza.

Itxas-Izar dan Ama kutunaz
gomutatzen da orduan,
uste biziaz otoitz egiñaz
sendi maiteaz gogoan.

7) Itxastar ospetsuak

Euskal-gogoa asartua da
adurzalea itxasoz,
gal-zoriari □ anterot ez da
sendo, kementsu ta gogoz.
Ori dala-ta itxas-gizonen
artean ez dau bardiñik,
bale arrantzan Euskeldunari
nor, irakatsi leionik?

Euskelduna zan Ingaland'eri
au irakatsi eutsona (1)
berau zalako lan bildurgarri
orretan lenen izana.
Almirantetzan gaillen ziranak
nok ete leikez zenbatu?
Okendo bat ta Txurruka'n pare

beste bi nondik aurkitu?

Baita ba da bat Kristo'ren alde
bizitza emon ebana,
Kemen, adorez, bardingabe zan
Matxin Mungitar gurena.

(1) England'eko Errege baten aginduz ona etorri ziran ikasten.

8) □ anter

Mundua mundu dan ezkeretik
gizon ospetsu ugari,
itxaso lurrez ibilli dira
bira egiten lurrari.

Azkenean be agertu zan bat
ta berau zan Euskelduna,
gure Erria mundu guztian
ospetsu egin ebana.
Getaria'tar □ anter au da
iru urtean itxasoz,
neke ta lorrez bira egiña
lur zabalari □ anterota.

Munduak oso □ anter eta
oiuz diñotse berari:
«Zu izan ziñan bira □ anterota
egin daustazuna niri».
Giza-guren ta arrigarri au
guztientzat ezaguna,
danok poz-pozik aitatzen dogu:
ELKANO dauko izena.

9) Zumarraga Aba

Seme argitan asko emona
ezpai barik da Durango,
Euskeran alde danen artean
Astarloa zan lenengo,
Baita Zabala Bruno Maurizi'k
(Montevideon irasle)
idazkietan agertu eban
egiz zala euskelzale.

Seme argitsu artean baiña
Zumarraga ospetsua,
gizabidea Ameriketean
zabaltzen bardinbakoa.
Prantziskotarra izan zan berau
ta len-Goi-Gotzain Mexiko'n
arimazale jakintsua ta
inditarrentzat Aita on.

Irarkolea eroan eban

□ anterota Amerikara,
len-liburua idatzi eban
ta an emon argitara.
Mixiñolari gitxi langoa,
jakiturian apala,
□ anterot ondo agertu eban
Asistarren Seme zala.

Gogorkerian aurka jokatu
eban bizitza guztian,
eta omenez or da Durango'n
zutik Ezkurdi erdian.

10) Bitoria Aba

Jakitunetan jakituna zan
gure Aba Bitoria,
Domekatarren esakun alde:
«Danen ganetik egia».
Lenen Paris'go Ikastetxean,
geroago Salamanka'n,
danak arrituz agertu eban
zelango burua eukan.

Berau izan lenengo aldiz
irakatsi sakonetan,
Erriak daben eskubidea
azaltzen ikasgaietan.
Edozein margo daben gizonak,
baltzak izan nai zuriak,
daukoz jatorriz, ukatu ezin
leikezan eskubideak.

Kistar-legea maite dabenak,
bear dautsoz aintzat artu,
gura ezpadau bere egitez
Jaunan legea zapaldu
Ortik sortu zan gaur ospetsu dan
Erritarteko legea,
Laterri danak bakean biziz
zorioneko bidea.

Beste asmu bat eukoentzako
ez zan egi au gozoa,
baiña kementsu azaldu eutsen
egi garbi ta osoa. (1)
Or ikusten da egi-indariak
emoten daun adorea,
«Egia geugaz guztien aurka»
zan Bitoria'n bidea.

(1) Karlos Erregeari.

11) Iparragirre

□ anterot zarra galtzarpean ta
Euskerea ezpanetan,
or dabil beti munduak zear
Euskal-Erria kantetan.
Bere biotza emen eukan da,
urrin ebillen gorputzez,
bai Amerika baita Europa'n
beti dakust errimiñez.

Foru maitaille sutsu-sutsua,
Erri onen abeslari;
egi garbi au egiztuteko
entzun daiogun berari:
«Gazte-gaztetatikan
erritik kanpora,
Estranjeri aldean
pasa det denbora.
Erri-alde guztietan
toki onak ba'dira,
baiña biotzak diñost:
«Zoaz Euskal-Errira».

Or dogu euskal-Arlote aundi
biotz oneko gizona,
abesti bidez Euskereari
agertzen maitetasuna.

12) Mixiñolariak (Xabier)

Europa oso arakatuta,
ez dago beste erririk
gureak aña bere neurrian
mixiñolari dauanik.
India eta Txina, Japon'en
Amerika, ta Aprikan
Euskal-semeak ugari dira,
mixiñolari lanetan.

Euren lanean nekatu barik,
etsai artean kementsu,
Kristo'ren alde dana galtzeko
adoretsu, beti gertu.
Danen artean gallen diranak
aitatzea da naikoa,
Deun Martin eta Zumarraga'gaz (1)
Balentin Berriotxo.

Baiña mixiño arazoetan
danen ganetik andia,
sutan biotza eukan Napartar
Xabier gure-gurea.
Bere ondoan jarri leikenik
ete da bat be munduan?
Milloi bat berreun mille bat
Kristiñau egin zituan.

Amar urtean neke ta lorrez,
egundo □ antero barik,
India eta Japon aldean
ez daki zer dan nekerik.
Maitasun beroz, egarri biziz
Txina biurtu □ anter,
Euskeraz otoi egiñaz il zan
Sanzian' go ugartean.

Maitatu daigun baita goraldun
euskeldun □ ante zintzoa,
eskatu baita zaindu daiela
gure Euskera gaxoa.

(1) Tomas Zoriondun. Gaiztetz' tarra.

13) Deunak (Iñaki Deuna)

Euskeldunetan Deun gitxi dala
ez dozue iñoz entzun?
Ogetasei bat Deun ta Zorundun
dirala egon jakitun.
Gaur bat bakarria aitatukogu
mundu-zabal ezaguna,
gure eredu eta aintza dan
Loiola Iñigo Deuna.

Adimen zorrotz, gogo sendodun
gizonen barri ekian,
au danak ondo ikusi geinke
Iñarkunak idaztian.
Bere inguru, □ antero kaltez
Eleizan barrizkundera,
jaritxiteko zur sortu eban
bere bazkun Lagundia.

Txatala eukan zurtasunagaz,
biotz onak aukeratzen,
eragozpenen ardura barik,
bere bidean jarraitzen.
Asmo bat ondo artu ezkerro,
nork atzerantza eragin?
Ez, etsai danak alkartuta be
bere kaltez gogor ekin.

Lavigerie, mixiñolari
eta □ anterot ospetsu,
izan zanak bein esan eban:
«Euskalduna naz, setatsu».
Bere idazki eta lanetan
agertu eban benetan;
Eusko-odola bero ta bizi
eukola bere zanetan.

14) Gernika'ko Batzarrak

Gizaldi-zear ospetsu ziran
Euskel-erriko Batzarrak,
baiña entzunen Aretx-azpian
Gernikan eiten ziranak.
Gure erriak beti euki dau
lege on-gille ospea,
itzal andiaz zaindu daualako
bakotxen eskubidea.

Lege-gilletza arazo latza,
benetan izan da beti.
Agintaritza zaindu bear da
□ anterota □ bestetik.
Orretarako legegilleak
izan bear dabe zurrak,
eta au ondo agertu eben
Gernika'n ziran Batzarrak.

An batzen ziran baserritarrak
euren erri-ordelari,
lege zar bidez lagunduteko
aurrerapide onari.
Legeak ziran gizonentzako
ez legeentzat gizona,
auxe izan zan gure Batzarrak
arau zuzentzat eukona.
Aldi aretan ain arrigarri
□ anterot eutsen egia,
gaur aurreratu diran erriak
nai leukie lortutea.

Or England'eko Habeas corpus (1)
ainbeste erabillia,
eurak argiro esan dabenez
geuregandik ikasia.
Ez □ anter ba, Washington'eko
□ anterota barruan,
agertzen ba'da gure Aretxe
beste askoren ondoan.

(1) Wentworth Webster'ek argiro sutortzen dau.

15) Bertsolaria

Ezdakit iñon Europa'n ba'da
ikastun ez diranetan,
Euskeldunakaz neurtu leikenik
ain gatx dan bertsolaritzan.
Erriko jai naiz ezkontza dala,
ezkon arteko auzia,
baserritarra beti da gertu
bertsoz sartzeko ziria.

Jan aundi baten ostean, barriz,
nor emen ez bertsolari?
Adimen bizkor, irudi biziz
edozein da ixekari.
Alkarren leyan dabiltzanean
entzuleak bai urduri,
txaloz apurtzen euren eskuak
garaitzallea danari.

Ez dau ezerk be bertsoak aiña
baserritarra poztuten,
bera be dala bertsolaria
ez ete dausku agertzen?
Onein artean danen txapeldun
egiz izan zan Enbeita,
baita bertSORA bidez il zana
gipuzkoatar «Txirrita».

16) Pelotari-Aizkolari

Euskaldunaren ezaugarri bat
trebe nai non agertzea,
indar, jolas ta bizkor □ antero
bera nausi izatea.
Bizkortasuna agertuteko,
or da pelota jokoa,
indar-iraupen erakusteko
aizkolari antzekoa.

Begia zoli arerio ta
peloteari begira,
tximista legez oñak be bizkor
eltzeko bere tokira,
besten asmuak ezagutzeko
irudimena zolia,
arerioa atzipetzeko
zur dago pelotaria.

Pelotariak gorputz indartsuz,
gogo kementsuz batean,
oin eta beso, begi, belarri,
bular onaz alkartzean,
eragipenez gorputz osoa
astintzen dakianean,
joko obe ta osoagorik
ez dot ezautzen lurrean.

Euskaldunetan ba'da joko bat
kemen bear ta bitia,
sendotasuna nor geiagoka
agertzeko egokia.

Begi zoli ta beso indartsuz
oiñak josi enborretan,
aizkora jasoz, taka ta taka,

biurtzen zozpal zatitan,
ikustea da Euskaldunentzat
bene-benetan pozgarri,
oiu eragin dautsoelako:
«Gora gure aizkolari!».

17) □ anter-ateak

Euskel-errien goi siñestea
bizitzagaz bat zanean,
erri arazo guztiak ziran
Eleizaren itzalpean.
Aintxe Eleiza ate aurrean
erri guztia bildurik,
ebazten ziran auzi guztiak
iñoren asarre barik.

Gero Udalak etorri ziran
euron nagusi Alkate,
Jai guztietan txistu soñuan
jotazan Eleizararte.
Gaur egunean, tamal-tamalez,
ez da ikusten txuxorik...
agintaritzan ezaugarria
bera bakarrik izanik.
Aurrerapena dala diño...
Baiña ete da benetan?
Zarrak ohea izaten daki
barriak baiño sarritan...

18) Txistularia

Txistu txuntxuna bai pozgarria
gure erri urietan,
soñu alaiatz, biotza pozez
ipinten alde danetan.
Ume ta andi, gazte eta zar,
txistu entzunaz bakarrik,
ikusten doguz, ikotika lez
guztiak pozez beterik.

Mendiak eurak alaitzen dira,
bialduaz oiartzuna,
ibarretan be zabalduagaz
txuntxunaren poztasuna.
Ezaugarririk onena berau,
zindotasun ezaugarri,
txistuari ba jarraitzen dautse
ekandu on dantza garbi...

Iraungo al dau txistuak beti
nagosi erri danetan...
Orduantxe bai zorioneko
Euskel-erria benetan.

19) Ama Euskeraren gorespena

(Ama Euskera atsotxu baten irudiz eta bere inguruan euskeldun umetxuak.)

Umetxuak Amari.- Au gure poza, Ama maitea, ainbeste seme zintzok ingurututa ikusteaz. Gaur zu goraltzen, zuri maitasuna agertzen etorri gara danok eta... geu be bai... Pozik egon bear zenduke, Ama, gaur, baiña apurtxo bat illun xamar aurkitzen zaitugu. Zer daukozu Ama?...

Amak.- Ene seme-alabatxo maiteak; begien aurrean ikusten dodana ikusita, nor ez da poztuko? Onango gorespenik egingo eustenik nik pentzauko neban ba!...

Baserritarra nazala-ta or euki nabe □anterota□, eta ori neure seme-alabak, eta batez be alabak... Señorita jantzi dirala-ta ni baserritar au, Ama izan arren be, bakarrik itxiten nabe, eta txarrago ondiño... lotsatu egiten dira ni euren Ama nazala esaten be... Oin legien aurrean ikusten dodanagaz, neure biotza □ante egiten da... Baña!...

Umetxuak Ama Euskereari.- Zergaitik diñozu... baña!...

Ama Euskereak.- Ni ain dotore yantzi nabenak emen e, uste dot biotzez maite nabela, ta biotzean dagoanak aotik urteten dauta, euren autu aldietan nigaz gomutauko dirala... orain arte baño geyago... orrek □ante egiten nau...

Baña guraso euskeldun askok umeai nor nazan be ez dausie erakusten, eurak besterik □antero ezpanetan erabilten nabe, baña biotzean nire maitasun-izpirik ez dauke...

Orrexegaitik nire gaurko poza beazunaz nastauta □anter esan leike. Au bai dala samingarri Ama batentzat... semeak aintzat artu be ez gura izatea...

Umetxuak Amari.- Aurrerantzean ori gertatuko dala uste dozu, Ama?

Ama Euskereak.- Alde batetik ainbeste □ante egiten dauste-ta uste dot, ni maitatzeko erabagia artuko dabela, baña bestetik, ni zarra be ba naz bai, ta asko ikusia, ta sarritan iazoten da norbaiti bere egunean eskintzen dautsezan lorakaz gertatzen dana jazoko dala, urrengo egunerako tximurtu ta aste bete barne siketu... Zirisuzkoagaz gomutatzen naz; □antero zarata asko eta urrengo goxean ezer ez...

Umetxuak Amari.- Oingoan olangorik ez da gertatuko.

Ama Euskerak.- Ez dakit ba!...

Umetxuak Amari.- Oingoan ez euki orren □anterot, Ama.

Ama Euskerak.- Zergaitik ez?...

Umetxuak Amari.- Gu bizi garean artean ez... Gaur zin-egiten beti maitetuko zaitugula.

Ama Euskerak.- Ume maiteak! Eskerrik asko ta Yaungoikoak entzun dagizuela. Baña gauza bat esan bear dautzuet. Zuen □ant ori betetako, eragozpen asko azpiratu bear dozue, zeuen ingurukoak sarritan barre egingo dautzue, txotxolo batzuk zariela esango dautzue..., ni ezertarako ez nazala... gaur modatik pasauta nagoala, txiroa nazala ta...

Umetxuak Amari.- Ta... zer? Ama. Guk ez dautsegu egingo yaramonik orreri. Ama ez da maitatu bear modea dalako, ez da baztertu be zarra dalako, ez da apal yantzita agertzen dalako, Ama beti da Ama eta geure dalako maitatu bear dogu.

Ama Euskerak.- Ederto esana! Bide orretatik yarraitu egizue, eta ez egizue uste izan besterik, ori egiñagaz zeuen eginbearra bete baño ez dozuela egiten. Baña beste gauza bat egin bear dozue...

Umetxuak.- Zer? Ama?

Ama Euskerak.- Niganako maitasuna zeuen anai-arrebatxuen artean zabaldu...

Umetxuak Amari.- ¡Orixe bai egingo dogula!... ez □anterot izan Ama. Gaurtik aurrera!... Umeak gara baña, ba'dakizu zelango burugorrrak izaten

garean geureagaz urten gura dogunean... Atzera ezegatik be ez dogu egingo, ez orixe!...

Ama Euskerak.-A zelango poza emoten daustazuen ume maiteok!...Yaungoikoak bedeinkatu zaizela.

Baña amaitu baño len gauza bat esan bear dautzuet: Ni apal eta lau agertzen nazalako, askok uste dabe besteak baño gitxiago nazala. Besteak apainzaleak dira, ni ez. Berezko edertasuna dabenak barrukoa batez be, ez dau apaindu bearrik, dan lez agertzea naikoa dau. Ni odol □antero alaba naz, naste barik, orregaitik nik ez dot esten iñor be, nik ez dot iñoren ondampurik, neureagaz naikoa dot, eta besteak apañago agertuarren, ba dakit apaingarri ori azalekoa dala. Ni azke izan naz, mendietako axe garbia lez, orrek emon daust indarra ainbeste milla urtetan biziteko, zarra naz urtez, baño barruz iñoz baño gazteago, nik emon daustot bizia, zintsotasun, lautasun eta biotz ona, ta nire semeak dirala yakinda bakarrik, munduko alde guztietan maite dabez, euren lankortasun, zintsotasun, leyaltasun eta egizaletasunagaitik, eta emondako berbea betetan dabelako. Asko oletako tximinien keak, nire edertasunak ikusteko lausotu egiten ditu, baño ori gora bera ni □anter naz, eta ez naz aldatu, nire ondasunak ez dira gitxitu. Yarranti ba, seme maiteok, zeuen Amari, baño □anter gero... osterantzean yakin egizue: NI IL TA OBIRATZEN BA'NABE, ZUENAK EGIN DEBELA; ZUEN AINTZA AMAITU ETA EUSKELDUN IZEN BARIK GELDITUKO ZIÑEKELA = NI EUSKERA NAZ; NIGANDIK ARTU DOZUE ZUEN IZENA = ETA GALDU EZKERO EUSKELDUN EZ ZIÑAKEZE IZANGO (1).

Umetxuak Amari.- Ez olangorik, Ama! Bizi zaitezala gazaldiak zear munduaren azkenerarte.

Gora gure Ama Euskera Maitagarria!...

309. Itzok Baltasar Etxabe'k, 1607'gn urtean argitaldu eban Euskeraren aldezko □anter baten, Euskeraren aotan ipinten ditu.

G. Manterola
